

Egoera ekonomikoa eta
Merkatuak
ASTEKO LABURPENA

2018ko otsailaren 12tik otsailaren 16rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EUROGUNEKO BPGd



Datuaren analisisia


Aurreko urteko epe berarekin alderatuta, Euroguneke ekonomia % 2,7 hazi zen 2017ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoko urte arteko datua baino bi hamarren gehiago. Adituek espero zutenarekin bat dator datua. Halaber, aurreko hiru hilabeteekin alderatuta, BPGd-ak % 0,6 egin zuen gora laugarren hiruhilekoan (merkatuak aho batez aurreikusituenaren antzekoa). Alemanian, iazko urria eta Abendua bitartean, BPGd-ak % 0,6 egin zuen gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (argitaratutako aurreikuspenen bidetik), eta 2017. urtean % 2,2 hazi zen. 2017ko laugarren hiruhilekoan, Alemaniako ekonomiaren pizgarriak nagusienak kanpotik etorri ziren. Bestalde, Italiako ekonomia % 1,4 hazi zen 2017an, hazkunderik handiena 2010etik, profesionalen datuen arabera.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketak eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI



Datuaren analisia


Erresuma Batuan, KPIa % 3an mantendu zen iragan urtarrilean (BoEren helburua: % 2), 2017ko abenduan bezalaxe (aurreikuspena % 2,9koa), joan den azaroan KPIak 2012ko martxotik lortzen ez zuen maximoetara iritsi ondoren; % 3,1ean kokatu zen orduan. Alemanian, bestetik, urte arteko inflazio-tasa % 1,6koa izan zen urtarrilean (harmonizatua, % 1,4). Urte hasieran, beraz, tasak pixka bat behera egin zuen, abenduko % 1,7arekin eta azaroko % 1,8arekin alderatuta. 2017ko abenduari dagokionez, indizeak % 0,7 egin zuen behera urtarrilean. Energiaren prezioen igoerak moteltzen jarraitu zuen. Espainiako KPIa urte arteko % 0,6koa izan zen urtarrilean (aurreratutako datua baino hamarren 1 gehiago), aurreko urteko prezio igoera baino bost hamarren gutxiago; elektrizitatearen merkatzearen eta, neurri txikiagoan, elikagai batzuen beheranzko portaeraren ondorioz, % 1,1ekoa izan zena.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisisia


KPlak urte arteko % 2,1 egin zuen gora urtarrilean, abenduko inflazioaren datu bera. Adituek, hala ere, prezioen datua % 1,9koa izango zela aurreikusi zuten. Hileko datuei begiratuta, hazkundera % 0,5ekoa izan zen, espero zen % 0,3aren aldean. Datu horrek AEBetako inflazioaren presioak berresten ditu, eta Fed-ek martxoan egingo duen bilan interes-tasak berriz igotzeko aukerak handitzen ditu. Gaur egun, interes-tasa ofiziala % 1,25 eta % 1,5 bitartekoa da. Bestalde, azpiko KPIa (prozesatu gabeko elikagaiak eta energia kanpoan utzita) % 1,8an egonkortu zen, adituek espero zuten % 1,7aren aldean. Datuak abendukoa berdindu zuen, KPI orokorrarekin gertatu zen moduan. 2017ko urtarrilarekin alderatuta, petrolioaren prezioek izandako igoera izan zen KPI orokorra indartu zuten faktoreetako bat.

Adierazlearen azalpena

KPIa hilerok prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: XEHEKAKO SALMENTAK / EKOIZPEN INDUSTRIALA



Datuaren analisia

Xehekako salmentek % 0,3 egin zuten behera urtarrilean, iragan hileko % 0,0ko geldialdiaren ostean (% 0,4tik berrikusitako datua). Kontsumaturiko adituek % 0,2ko igoera espero zuten. Bestalde, industria-ekoizpenaren indizea % 0,1 jaitsi zen urtarrilean. Adituak ustekabean hartu zituen datuak, % 0,2ko igoera espero baitzuten. Meatzaritzako ekoizpenaren ehuneko 0,1eko murrizketak ere eragina izan zuen beherakada horretan, manufakturen jardueraren egonkortasunarekin eta zenbait partida garrantzitsuren hazkundearekin kontrajarriz (automobila, makinak eta osagai elektronikoak). Industria-gaitasunaren erabilerak ehuneko 77,5 egin zuten behera, merkatuak espero zuten ehuneko 78,0aren aldean.


Adierazlearen azalpena

Xehekako salmenten adierazleak xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra eta xehekako saltegien arrakasta erakusten ditu. Hilero enpresei xehekako merkataritzaren egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak.

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Indizeak dituen aldakuntzak garrantzitsuak dira hazkundearen analisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: BPGd



Datuaren analisisa

2017ko laugarren hiruhilekoan, Japoniako ekonomia % 0,5 hazi zen aurreko urteko epe berarekin alderatuta; elkarren segidako zortzigarren igoera eta hazkunderik luzeena 1989tik. Kontsumoa, ekonomia japoniarraren zutabe nagusia, urteko % 1,9ko erritmoan hazi zen eta hiruhileko arteko % 0,5. Etxeko ekonomiaren hazkundera eta esportazioen gorakadak datua indartu zuten, eta ondasun eta zerbitzuen inportazioek, berriz, apaldu. Hazkunderaren datua analista gehienek aurreikuspenen azpitik kokatu zen, eta erritmoaren moteltzea ekarri zuen urteko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta; izan ere, orduan, Japoniako BPGd-a urte arteko % 2,5 igo baitzen eta hiruhileko arteko % 0,60.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
02/19	Japonia	Balantza komertziala	-¥1020.2b
02/19	Japonia	Urte arteko esportazioak	% 9,4
02/19	Japonia	Urte arteko inportazioak	% 7,8
02/20	Espainia	Balantza komertziala	--
02/20	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	93.7
02/20	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	15.0
02/20	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
02/20	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	1.1
02/21	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
21/02	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	--
21/02	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	58.5
21/02	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	58.2
21/02	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4,3
21/02	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
21/02	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
21/02	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.62m
21/02	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	% 0,9
21/02	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
02/22	Frantzia	Urte arteko KPIa	--
02/22	Alemania	IFO enpresen egoera	117.0
02/22	Alemania	IFO aukerak	108.0
02/22	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	126.9
02/22	Erresuma Batua	Urte arteko BPGd	% 1,5
02/22	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
02/22	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--
02/23	Japonia	Urte arteko KPIa	% 1,3
02/23	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	% 0,6
02/23	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 1,3

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Igoera orokorrak munduko burtsa nagusietan, hegazkortasun kota handiekin. AEBetako inflazioaren presio handiagoen aitzakiarekin azken bi asteetan eginiko zuzenketa "tekniko" handien ostean, KPI estatubatuarra izan da asteko daturik garrantzitsuena. Izan ere, datu horrek inflazioaren aurreikuspenen igoera babestu baitu. Nolanahi ere, argitaratu diren beste zenbait adierazlek (orain dela urtebeteko xehekako salmenten beherakadarik handiena, besteak beste) irakurketa positibo bat eskaini dute. Izan ere, interes-tasak igotzeko prozesuan bizkorrago joateko Fed-i eginiko presioa baretu egin baita. Testuinguru horretan, Wall Streeteko inbertitzaileek muga jarri diote otsailean hasitako irabazien bilketari, errenta aldakorra erosteko hautua eginez. Bada, erabaki horrek kutsatze-efektua izan du gainerako herrialdeetan. Enpresa-emaitzei dagokienez, nabarmendu behar da dagoeneko AEBetako emaitzen % 74 argitaratu direla eta Europako emaitzen % 50 inguru. Laugarren hiruhilekoan, akzio bakoitzaren etekinaren urte arteko hazkundea bi digitutakoa izan zen (% 15), eta salmenten tasak % 8 ingurukoak izan ziren.

ERRENTA FINKOIA:

Estatu Batuetako KPIaren datuaren ondotik, tasek gora egin zuten AEBetan, eta 10 urterako bonuak % 2,94ko errentagarritasuna gainditu zuen momentu batzuetan. Europan, mugimenduak askoz zuhurragoak izan ziren, nahiz eta bund-a % 0,78raino heldu. Gero, bi kurbak baretuz joan ziren. Fed-eko presidente berriaren mezu bigunagoek (edozein finantza-arriskuren aurrean erne ibiliko dela adierazi zuen) ez zuten saihestu AEBetako tasen goranzko joera.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Joan den asteko balio handitzearen ostean, dolarra ahul ibili da berriro gainerako dibisen aldean, bonu amerikarren etekinek gorantz egin duten arren. Euroaren balioa 1,243 dolarrekoa izan zen, nahiz eta 2014. urte amaieratik lortzen ez zituen maximoak berriro zituen (1,255 \$). Yena oraindik balioa irabazten ari da erreferentziatzko dibisa gisa. Lehengaietan, petrolioaren prezioak gora egin zuen, dolarraren ahultasunak (petrolio gordinaren inbentarioen asteko hazkunderik txikiena AEBetan) eta ekoizpena murrizteko indarrean dauden hitzarmenak 2018ko amaierara arte luzatzeko LPEEren borondateak lagunduta. Dolarraren ahuldadeari esker, urriaren prezioa maximoetatik gertu ibili zen bi aste baino gehiagoz.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2018
MSCI WORLD (Eur)	175,37	2,57	-1,96
IBEX 35	9.832,10	2,00	-2,11
DJ EURO STOXX 50	3.426,80	3,03	-2,20
DJ STOXX 50	3.057,75	2,80	-3,78
FTSE	7.294,70	2,85	-5,11
S&P 500	2.732,22	4,30	2,19
Dow Jones	25.219,38	4,25	2,02
NASDAQ	7.239,47	5,31	4,87
NIKKEI 225	21.720,25	1,58	-4,59
MSCI GORAKORRAK (Eu)	378,53	3,29	-0,10
MEXBOL	48.882,79	2,27	-0,96
BOVESPA	84.524,58	4,48	10,63
SHANGHAI	3.350,57	2,21	-3,26
Errusia Rts Mosku	1.263,27	6,53	9,43

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,57	0,00	0,06
ESPAINIA 2 URTE	-0,20	0,00	0,15
AEB 2 URTE	2,19	0,12	0,31
ALEMANIA 10 URTE	0,71	-0,04	0,28
ESPAINIA 10 URTE	1,46	-0,02	-0,11
AEB 10 URTE	2,87	0,02	0,47
ALEMANIA 30 URTE	1,36	0,01	0,09
ESPAINIA 30 URTE	2,58	0,04	-0,27
AEB 30 URTE	3,13	-0,03	0,39
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	51,52	-3,61	6,60
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	261,94	-13,46	29,51

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald. 2018
Dolarra / Euroa	1,24	1,30	3,37
Yena / Euroa	131,86	-1,06	-2,50
Libera / Euroa	0,88	-0,21	-0,38

Lehengaiak 2018	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald.
Petrolio (Brendt)	64,80	3,81	-3,02
Urrea	1.347,10	2,35	3,38

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiarekin, osorik edo zati bat argitaratu.